Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

# Aurretiazko genero eraginaren txostena

**Foru dekretu proiektua, Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen dituena**

## 1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapidetzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

# Informe de evaluación previa de impacto de género

**Proyecto de decreto foral por el que se modifican determinados reglamentos de desarrollo de la Norma Foral General Tributaria**

## 1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido en el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.

- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.

- la evaluación previa del impacto en función del género.

- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada

## 2. Arau aldaketak

## 2. Modificaciones normativas

### 2.1. Abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duena

### 2.1. Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, por el que se aprueba el reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa

**Zorra - Gerorapen eta zatikapen eskaerak**. Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatuak eskumena du gerorapen eskaera jakin batzuk ebazteko. Hala ere, geroratu beharreko zenbatekoa 3.000.000 eurotik gorakoa denean edo epea bost urtetik gorakoa denean, Foru Gobernuaren Kontseiluaren baimena behar da. Eskaera jakin batzuen ebazpena bizkortzeko, epe hori hamar urtera igotzea planteatzen da.

**Deuda - solicitudes de aplazamientos y fraccionamientos**. El Diputado o Diputada del Departamento de Hacienda y Finanzas tiene competencia para resolver la petición de determinadas solicitudes de aplazamiento. No obstante, necesita la autorización del Consejo de Gobierno Foral cuando la cuantía a aplazar exceda de 3.000.000 de euros o el plazo sea superior a cinco años. Con el objetivo de acelerar la

resolución de determinadas solicitudes, se plantea elevar ese último plazo a diez años.

**Zorra - gerorapen eta zatikapen eskaerak.** Honako aipamena kentzea proposatzen da: "Ordaintzera behartutakoak gerorapen edo zatikapen eskaerarekin batera ordainketa eteteko eskaera bat aurkezten badu administrazio bideko berrikuspenari buruzko araudi aplikagarriaren babesean, izaera subsidiarioz bada ere bata bestearekiko, ulertuko da atzera egiten duela gerorapen edo zatikapen eskaeran, eta eskaera hori etete eskaeraren ondoren aurkezten badu, gerorapen edo zatikapen eskaera ez da onartuko."

**Deuda - solicitudes de aplazamientos y fraccionamientos**. Se propone suprimir la referencia relativa a: "En el caso de que la persona obligada al pago presente una solicitud de aplazamiento o fraccionamiento y una solicitud de suspensión, al amparo de lo dispuesto en la normativa aplicable en materia de revisión en vía administrativa, aunque sea con carácter subsidiario una respecto de la otra, se considerará desistida de la solicitud del aplazamiento o fraccionamiento, resultando inadmitida en el caso de que dicha solicitud de aplazamiento o fraccionamiento sea posterior a la solicitud de suspensión."

**Zorra - gerorapen eta zatikapen eskaeren ebazpenak.** Ebazpenaren jakinarazpenari buruzko atalean gehitu nahi da, behin ebazteko gehieneko epea amaituta ebazpena jakinarazi gabe, ulertu ahal izango dela geroratzeko eskaera ezetsita dagoela dena delako errekurtsoa jartzeari begira.

**Deuda - resoluciones de solicitudes de aplazamientos y fraccionamientos**. En el apartado relativo a la notificación de la resolución, se propone añadir que transcurrido el plazo máximo de resolución sin que se haya notificado la misma, se podrá entender desestimada la solicitud de aplazamiento a los efectos de interponer el recurso correspondiente

**Zorrak konpentsatzea**. Foru Ogasunaren beste hartzekodun batzuen zorrak ofizioz konpentsatzeko atalaren barruan, erregelamendu bidez garatzen da ofizioz konpentsaziorik ez egiteko aukera ordaintzeko epe exekutiboan dauden zerga zorren gerorapen edo zatikapenetan, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak hala erabakita; horretarako, aldez aurretik Foru Gobernu Kontseiluaren baimena beharko da, geroratu edo zatikatu beharreko zenbatekoa 3 milioi eurotik gorakoa denean edo epea bost urtetik gorakoa denean.

**Compensación de deudas**. Dentro de la compensación de oficio de deudas de otros acreedores a la Hacienda foral, se desarrolla reglamentariamente la posibilidad de no proceder a la compensación de oficio en los aplazamientos o fraccionamientos de deudas tributarias en periodo ejecutivo de pago, por acuerdo del diputado o la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, que requerirá la previa autorización del Consejo de Gobierno Foral cuando la cuantía a aplazar o fraccionar exceda de 3 millones de euros o el plazo sea superior a cinco años.

**Zorraren bermeak.** Alde bakarrez eratutako bermeak onartzean eta/edo ezereztean, Ogasuneko zuzendari nagusiak agiri administratibo baten bidez onartu ahal izango ditu berme horiek. Agiri horren edukia dagokion erregistroan jasoko da. Onarpen eta/edo ezerezte hori Ogasuneko zuzendari nagusiak egin behar duela dioen aipamena kentzea proposatzen da.

**Garantías de la deuda**. En la aceptación y/o cancelación de las garantías constituidas unilateralmente, el Director o Directora General de Hacienda podrá aceptar las mismas mediante documento administrativo, cuyo contenido se hará constar en el registro correspondiente. Se propone eliminar la referencia a que esa aceptación y/o cancelación deba hacerla el Director o Directora General de Hacienda.

**Zerga bilketa borondatezko epean eta epe exekutiboan – premiamenduzko prozedura.** Premiamenduko probidentziak jaso behar duenari dagokionez, premiamenduzko

**Recaudación en periodo voluntario y ejecutivo – procedimiento de apremio**. Sobre lo que debe contener la providencia de apremio, se propone modificar la referencia

errekargu murriztuaren %15eko erreferentziaren ordez %5eko erreferentzia jartzea proposatzen da.

al 15% del recargo de apremio reducido por la referencia del 5%.

**Erantzuleen eta ondorengoen aurrean jarraitu beharreko prozedura.** Zerga-bilketako prozeduran, pertsona fisikoen oinordekoei dagokienez, premiamenduzko errekargu murriztuaren %15ari buruzko erreferentziak %5eko erreferentziarekin aldatzea proposatzen da.

**Procedimiento frente a responsables y sucesores.** En el procedimiento de recaudación frente a los sucesores de personas físicas se propone modificar las referencias al 15% del recargo de apremio reducido por la referencia del 5%.

**Erantzuleen eta ondorengoen aurrean jarraitu beharreko prozedura.** Zerga-bilketako prozeduran, pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen ondorengoen aurrean, premiamenduzko errekargu murriztuaren %15ari buruzko erreferentziak %5eko erreferentziarekin aldatzea proposatzen da.

**Procedimiento frente a responsables y sucesores.** En el procedimiento de recaudación frente a sucesores de personas jurídicas y entidades sin personalidad jurídica se propone modificar las referencias al 15% del recargo de apremio reducido por la referencia del 5%.

**2.2. Irailaren 26ko 41/2006 Foru dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra, egintzak administrazio bidetik berrikusteari dagokionez, garatzeko Erregelamendua onartzen duena**

**2.2. Decreto foral 41/2006, de 26 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento de desarrollo de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de revisión en vía administrativa.**

**Erreklamazio ekonomiko-administratiboak. Prozeduraren kostuak.** Ondorengoari buruzko erreferentzia ezabatzea proposatzen da: kostuak ordaindu beharra ezartzen denean, erreklamazioaren zenbatekoaren ehuneko 2an kuantifikatuko dira. Banaka ebatzitako erreklamazio edo errekurtsoen kasuan, gutxieneko zenbatekoa 150 euro izango da, eta kide anitzeko organoek ebatzitakoen kasuan, 500 euro. Kopuru zehaztugabeko erreklamazioen kasuan, kostuak gutxieneko zenbateko horietan kuantifikatuko dira. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru agindu bidez eguneratu ahal izango ditu zenbateko horiek

**Reclamaciones económico-administrativas. Costas del procedimiento.** Se propone eliminar la referencia a que cuando se imponga el pago de las costas, éstas se cuantificarán en un porcentaje del 2 por ciento de la cuantía de la reclamación, con un mínimo de 150 euros para las reclamaciones o recursos resueltos de forma individual, y de 500 euros para los que se resuelvan por órgano colegiado. En caso de reclamaciones de cuantía indeterminada, las costas se cuantificarán en las cuantías mínimas referidas. Estas cuantías podrán actualizarse por orden foral del diputado o de la diputada foral del Departamento de Hacienda y Finanzas

**Erreklamazio ekonomiko-administratiboak. Tramitazioa.** Arazo prejudizialei buruzko 61.bis artikulua ezabatzea proposatzen da.

**Reclamaciones económico-administrativas. Tramitación.** Se propone eliminar el artículo 61.bis relativo a las cuestiones prejudiciales.

**Erreklamazio ekonomiko-administratiboak. Ebazpena.** Ebazpenak izan ditzakeen erabakiak argitzea proposatzen da (ez onartzea, osorik edo partzialki onartzea, ezestea edo jarduketak artxibatzea); eta baita, zenbait kasutan prozeduraren izapidetzea eteteko aukera sartzea.

**Reclamaciones económico-administrativas. Resolución.** Se propone clarificar los diferentes pronunciamientos que podrá contener la resolución (inadmisión, estimación total o parcial, desestimación o declaración de archivo de las actuaciones.); y también, introducir la posibilidad de suspender la tramitación del procedimiento en diversos supuestos.

**2.3. Irailaren 26ko 42/2006 Foru dekretua, zerga urraketen eta zigorren araubidea garatzeko Erregelamendua onartzen duena.**

**Zerga alorreko urraketa eta zigor jakin batzuetarako arau bereziak. Datuak ezkutatzeak duen eragina kalkulatzea.** Kalkulua egokitu egiten da, Europar Batasunetik kanpoko ondasun edo eskubideekin lotura izanez gero.

**Mugatzeko eta kuantifikatzeko arau bereziak - Zerga urraketa, autolikidazioak, aitorpenak edo zerga ondorioak dituzten bestelako dokumentuak bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiltzeko obligazioa bete gabe aurkezteagatik.** Araudia argitzeko xedearekin, proposatzen da ez dela erantzukizunik sortuko ez aurkezteagatik, baldin eta aurrerago aurkezten badira bitarteko horiek erabilita, aldez aurretiko errekerimendurik izan gabe eta zigor prozedura bat hasi baino lehen.

**2.3. Decreto foral 42/2006, de 26 de septiembre, por el que se aprueba el Reglamento del régimen de infracciones y sanciones tributarias**

**Normas especiales para determinadas infracciones y sanciones tributarias. Cálculo de la incidencia de la ocultación.** Se adecúa el cálculo cuando tenga relación con bienes o derechos situados fuera de la Unión Europea.

**Normas especiales para la delimitación y cuantificación - Infracción tributaria por presentar autoliquidaciones, declaraciones u otros documentos con trascendencia tributaria incumpliendo la obligación de utilizar medios electrónicos, informáticos o telemáticos.** Con el objetivo de aclarar la regulación, se propone establecer que no se incurrirá en responsabilidad por la no presentación, cuando posteriormente se produzca la presentación por dichos medios, sin requerimiento previo y con anterioridad al inicio de un procedimiento sancionador.

**2.4. 1/2010 Foru dekretua, azaroaren 16koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskaritzaren Erregelamendua onartzen duena**

**Herri Ogasunaren aurkako delitu kasuetan egin beharreko jarduketak – Delitu zantzuak.** Honako aipamena ezabatzea proposatzen da: "Herri Ogasunaren aurkako delitu zantzuak edozein unetan atzeman daitezke, baita likidazio administratiboa agindu edo, are gehiago, zehapena ezarri ondoren ere.

Horrelako kasuetan, likidazio administratiboaren proposamenak eta zehapen proposamenak baliorik gabe geratuko dira.

Era berean, egindako likidazioen eta ezarritako zehapenen exekuzioa eten egingo da, hurrengo apartatuan adierazten dena galarazi gabe."

**2.4. Decreto foral 31/2010, de 16 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Inspección Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa**

**Actuaciones en supuestos de delito contra la Hacienda Pública – Existencia de indicios**. Se propone eliminar la siguiente referencia: "La apreciación de dichos indicios de delito contra la Hacienda Pública, podrá tener lugar en cualquier momento, con independencia de que se hubiera dictado liquidación administrativa o, incluso, impuesto sanción.

En estos casos, las propuestas de liquidación administrativa y de sanción que se hubieran formulado, quedarán sin efecto.

Asimismo, se suspenderá la ejecución de las liquidaciones y sanciones ya impuestas, sin perjuicio de lo indicado en el apartado siguiente."

**2.5. 2013ko otsailaren 26ko 8/2013 Foru dekretua, fakturatzeko obligazioak arautzen dituen Erregelamendua onartzen duena.**

**Dokumentazio obligazioak – Eragiketak dokumentatzeko obligazioaren berezitasunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.** Faktura egitea ez dakarten eragiketa jakin batzuen egiaztagiria emateko betebeharra aldatzea proposatzen da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunei eta errentak esleitzen dituzten entitateei eragin diezaien, baina bakarrik jarduera ekonomikoen etekinak lortzen dituztenean.

**2.5. Decreto foral 8/2013, de 26 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento que regula las obligaciones de facturación**

**Obligaciones de documentación – Particularidades de la obligación de documentar las operaciones en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.** Se propone modificar la obligatoriedad de expedir justificante por determinadas operaciones por las que no se expida factura, y que afecte a las y los contribuyentes del impuesto sobre la renta de las personas físicas y a las entidades en atribución de rentas, pero únicamente cuando obtengan rendimientos de actividades económicas.

**2.6. 47/2013 Foru dekretua, abenduaren 17koa, zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen duena**

**Atzerriko ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharra**. Ondorengo aldaketak proposatzen dira:

- Urtero atzerriko ondasun eta eskubide guztien berri eman beharko da, kategoriaren arabera taldekatuta, betiere

**2.6. Decreto foral 47/2013, de 17 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrollan determinadas obligaciones tributarias formales**

**Obligación de información sobre bienes y derechos en el extranjero**. Se proponen las siguientes modificaciones:

- Deberá informarse anualmente del conjunto de los bienes y derechos en el extranjero, agrupados por categoría,

kategoria bakoitzeko 50.000 euroko atalasea gainditzen bada. Beraz, 20.000 euro baino gutxiagoko igoera egon arren, zergadunak urtero eman beharko du haiei guztiei buruzko informazioa.

siempre que por cada categoría se supere el umbral de 50.000 euros. Es decir, aun existiendo un incremento inferior a 20.000 euros, se deberá informar anualmente sobre todos ellos.

- Hala ere, informazio aitorpena bakarrik ondasun higiezinei eta haien gaineko eskubideei buruzkoa denean, aurreko arauari eutsiko zaio, eta hurrengo urteetan aitorpena egiteko betebeharra egongo da azken deklarazioa aurkeztea eragin zuen urtearekiko 20.000 eurotik gorako igoera dagoenean bakarrik. Baina, urte horretan beste edozein ondasun kategoriari buruzko informazioa emateko betebeharra badago, ondasun higiezinen edo beraien eskubideei buruzko informazioa ere eman beharko da, nahiz eta 20.000 baino gehiagoko igoerarik ez egon.

- No obstante, cuando la declaración de información se refiera únicamente a bienes inmuebles y derechos sobre los mismos, se mantiene la regla anterior y los años sucesivos solo existirá obligación de declarar cuando aquellos experimenten un incremento superior a 20.000 euros respecto del que determinó la presentación de la última declaración. Pero, en el caso de que ese año se tenga obligación de informar sobre cualquiera de las otras categorías de bienes, también deberá informar sobre los bienes inmuebles o derechos sobre los mismos, aun no existiendo un incremento superior a 20.000 euros.

- Edozein kasutan, mantendu egiten da eskualdatutako edo baja emandako ondasunei edo eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharra, baldin eta aldez aurretik aitorpen batean sartu badira. Betebehar hori mantendu egiten da, halaber, eskualdaketa edo baja urtean zergapekoak atzerrian 50.000 eurotik

- Se mantiene, en todo caso, la obligación de informar sobre los bienes o derechos transmitidos o dados de baja, siempre y cuando éstos hayan sido anteriormente incluidos en una declaración. Esa obligación se mantiene igualmente aun en el supuesto en el que en el año de transmisión o baja el obligado tributario

beherako ondasunak eta eskubideak baditu ere kategoriaka.

tenga bienes y derechos en el extranjero por un importe inferior a 50.000 euros por categoría.

- Aurkezteko epea aldatu egin da, eta apirilaren 1etik ekainaren 30era izango da, urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra izan ordez.

- Se modifica el plazo de presentación, pasando a ser del 1 de abril al 30 de junio, en vez del 1 de enero al 31 de marzo.

- Argitu egiten da, urteko informazio aitorpena aurkezteko betebeharraren ondorioetarako, txanpon birtualei dagokienez, txanpon birtual guztien baterako balioa izango da 50.000 euro gainditu beharko duena.

- Se aclara que, a efectos de la obligación de presentar la declaración informativa anual, en lo referente a las monedas virtuales será el valor conjunto de todas las monedas virtuales el que deberá superar la cifra de 50.000 euros.

**2.7. <u>32/2020 Foru Dekretua, abenduaren 22koa, TicketBAI betebeharra garatzen duen Erregelamendua onesten duena</u>**

**2.7. <u>Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI</u>**

**TicketBAI betebeharra ezartzeko egutegia**. Osatu egiten da eta gehitu egiten dira nekazaritza, mendeko abeltzaintza, basogintza, arrantza jarduerak, eta baita zergaren tarifetan zehaztu gabe dauden gainerako enpresa, lanbide edo arte jarduerak egiten dituztenak ere.

**Calendario de implantación de la obligación TicketBAI**. Se completa añadiendo a las y los contribuyentes que ejerzan actividades agrícolas, ganaderas dependientes, forestales, pesqueras, así como el resto de actividades empresariales, profesionales o artísticas no especificadas en las tarifas del impuesto.

**Aplikazio eremua**. Argitu nahi da erregelamendua jarduera ekonomikoak garatzen dituzten eta errentak esleitzen dituzten entitateei ere aplikatuko zaiela.

**Ámbito de aplicación.** Se pretende aclarar que el reglamento también será de aplicación a las entidades en atribución de rentas que desarrollen actividades económicas.

**Gorabehera teknikoak**. TicketBAI softwarea erabili gabe eragiketa egin den unean igorri diren fakturek edo egiaztagiriek jaso beharko duten adierazpena sinplifikatzea proposatzen da, gorabehera teknikoen salbuespenezko kasuetan.

**Incidencias de carácter técnico**. Se propone simplificar la expresión que deberán incluir las facturas o justificantes que hayan sido expedidos en el momento de realizar la operación sin emplear el software TicketBAI, en supuestos excepcionales de incidencia de carácter técnico.

## 3. Genero eragina

## 3. Impacto de género

### 3.1 Genero egokitasuna

### 3.1 Pertinencia de género

Proiektu honetan proposatutako aldaketek hainbat helburu dituzte:

- Alde batetik, Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk, apirilaren 15eko 3/2021 Foru Arauak, zenbait aldaketa onartzekoak, sartutako aldaketetara egokitu nahi dira. Adibidez, foru arau horrek %15etik %5era aldatu zuen premiamenduko errekargu murriztua.

Las modificaciones propuestas en este proyecto tienen varias finalidades:

- Por un lado, se pretende adecuar determinados reglamentos de desarrollo de la Norma Foral General Tributaria a las modificaciones introducidas por la Norma Foral 3/2021, de 15 de abril, por la que se aprueban determinadas modificaciones. Por ejemplo, esa norma

Orain, %15eko erreferentzia guztiak aldatu nahi dira, eta %5eko erreferentzia jarri.

- Bestalde, iruzur fiskala prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko jarduerak errazteko eta zerga kontrola indartzeko, zenbait aldaketa egin nahi dira atzerrian dauden ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharraren erregulazioan.

- Eta, azkenik, zenbait erregelamenduren edukia Auzitegi Gorenak eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusikak emandako hainbat epaitan jasotako pronuntziamendu judizialetara egokitu nahi da.

Proposatutako aldaketa gehienak (erregelamenduen egokitzapena 3/2021 Foru Arauan onartutako neurrietara eta justizia auzitegien epaietara egokitzapenak) teknikoak dira eta/edo araudian jada onartutako neurrietara egokitzekoak. Ildo horretan, neurri horiek ez dute eraginik emakumeek eta gizonek bizi duten egoera edo posizio sozialean, ez eta berdintasunaren lorpenean ere, eta ez dute

foral modificó del 15% al 5% el recargo de apremio reducido. Ahora, se pretende modificar todas las referencias al 15% por las referencias al 5%.

- Por otro lado, con el objetivo de facilitar las actuaciones tendentes a prevenir y luchar contra el fraude fiscal y reforzar el control tributario, se pretende introducir algunos cambios en la regulación de la obligación de información sobre bienes y derechos situados en el extranjero.

- Y por último, se pretende acomodar el contenido de determinados reglamentos, a los pronunciamientos judiciales contenidos en diversas sentencias dictadas por el Tribunal Supremo, y a sentencias del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

La mayoría de las modificaciones propuestas (adecuación de los reglamentos a medidas ya aprobadas por la Norma Foral 3/2021 y a sentencias de tribunales de justicia) son de carácter técnico y/o de adecuación de la normativa a medidas ya aprobadas. En ese sentido, esas medidas no afectan ni a la situación ni a la posición social ocupada por mujeres y hombres, ni afectan al logro de la

eragin soziala duen araudirik sartzen. Eta baliabideetarako sarbidean eragiten ez dutenez, haien genero azterketa ez dela egokia erabaki da.

igualdad, ni introducen ninguna regulación con incidencia social. Y dado que no inciden en el acceso a los recursos, se determina que no es pertinente su análisis de género.

Atzerrian dauden ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharraren erregulazioaren aldaketak eragin diezaieke zuzenean zergadunei. Ildo horretan, eta kontuan hartuta:

- azken talde hartzailearen barruan pertsona fisikoak daudela.
- arau xedapenak emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeari eta/edo kontrolatzeari eragiten diola.

Erabaki da egokia dela arau proiektuaren genero azterketa, atzerrian dauden ondasun eta eskubideei buruzko informazioa emateko betebeharraren erregulazio aldaketei dagokien zatian.

La medida que si puede afectar directamente a las personas contribuyentes es el cambio en la regulación de la obligación de información sobre bienes y derechos situados en el extranjero. En ese sentido, y teniendo en cuenta que:

- dentro del grupo destinatario final están las personas físicas.
- la disposición normativa afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres

Se determina que es pertinente el análisis de género del proyecto normativo, en la parte correspondiente a los cambios en regulación de la obligación de información sobre bienes y derechos situados en el extranjero.

## 3.2. Genero eraginaren balorazioa

### 3.2.1. Hasierako egoera

2013 – 2020 epealdian “720 - Atzerrian dauden ondasun eta eskubideei buruzko aitorpen informatiboa” ereduaren aurkezpen datuak honako hauek dira:

## 3.2 Valoración del impacto de género

### 3.2.1 Situación inicial

Los datos de presentación del modelo “720 - declaración informativa sobre bienes y derechos situados en el extranjero” en el periodo 2013-2020 son los siguientes:

| | Kopurua / Número | % |
|---|---|---|
| Emakumeak / Mujeres | 4.443 | 49,0 |
| Gizonak / Hombres | 4.550 | 50,2 |
| Pertsona juridikoak / Personas jurídicas | 79 | 0,9 |
| **Guztira / Total** | **9.072** | **100** |

Aitortzaile guztietatik, % 49,0 emakumeak dira eta % 50,2 gizonak.

Indarrean dagoen araudiarekin lehenengo aldian aitortzen da, eta gero, ondasunen eta eskubideen balioan aldaketa batzuk gertatzen direnean bakarrik. Aldaketa proposamenak urtero aitorpena aurkezteko betebeharra ezarri nahi du; hala ere, urteko betebehar horretatik salbuetsita geratzen da informazioa soilik ondasun higiezinei eta horien gaineko eskubideei buruzkoa denean.

Del total de declarantes, el 49,0% son mujeres y el 50,2% hombres.

Con la normativa vigente se declara la primera vez, y posteriormente, solo cuando se dan ciertas modificaciones en el valor de los bienes y derechos. La propuesta de modificación pretende establecer la obligación de presentar la declaración anualmente; si bien, se exceptúa de esa obligación anual cuando la información se refiera únicamente a bienes inmuebles y derechos sobre los mismos.

2013-2020 epealdian aurkeztutako aitorpenak aztertuta, urtero aitorpena aurkezteko betebeharra duen kolektiboaren eta salbuetsita geratuko litzatekeen kolektiboaren (ondasun higiezinak soilik dituztelako) banaketa honako hau izango litzateke:

Analizando las declaraciones presentadas en el periodo 2013 - 2020, la distribución del colectivo obligado a presentar la declaración anualmente y el colectivo que quedaría exceptuado (por tener únicamente bienes inmuebles) sería el siguiente:

| | Guztira/ Total (a) | | Behartuak / Obligadas (b) | | Behartu gabeak/ No obligadas (c) | | b / a | c / a |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Emakumeak / Mujeres | 4.443 | 49,0 | 2.898 | 48,2 | 1.545 | 50,4 | 65,2 | 34,8 |
| Gizonak / Hombres | 4.550 | 50,2 | 3.037 | 50,6 | 1.513 | 49,4 | 66,7 | 33,3 |
| Pertsona juridikoak / Personas jurídicas | 79 | 0,9 | 72 | 1,2 | 7 | 0,2 | 91,1 | 8,9 |
| **Guztira / Total** | **9.072** | **100,0** | **6.007** | **100,0** | **3.065** | **100,0** | **66,2** | **33,8** |

Aitorpena urtero aurkeztu beharko duten pertsona guztien %48,2 emakumeak dira. Gizonak % 50,6 dira.

Las mujeres representan el 48,2% de total de personas declarantes que quedarán obligadas a presentar la declaración cada año. Los hombres representan el 50,6%.

Betebeharraren erregulazioaren aldaketak eraginpean hartuko ez lituzkeen aitortzaile guztien % 50,4 emakumeak dira. Gizonak %49,4 dira.

Las mujeres representan el 50,4% de total de declarantes a los que no afectaría el cambio en la regulación de la obligación. Los hombres representan el 49,4%.

Oro har, guztien %66,2a urtero aurkeztuko du aitorpena, eta %33,8ak ez. Emakumeen kasuan, %65,2k aurkeztu beharko du aitorpena, eta %34,8k ez. Gizonen kasuan, banaketa da

En general, el 66,2% del total presentará la declaración anualmente y el 33,8% no. En las mujeres, el 65,2% deberá presentar declaración y el 34,8% no. En el caso de los

%66,7ak bai eta %33,3ak ez.

hombres, la distribución es 66,7% si, y 33,3% no.

### 3.2.2 Genero eraginaren balorazioa

### 3.2.2 Valoración del impacto de genero

Aurretik aipatutako datuak kontuan hartuta, ez dirudi aldaketa proposamenak funtsezko aldaketarik eragiten duenik aitorpena aurkeztera behartuta eta ez behartuta dauden pertsonen banaketan.

Teniendo en cuenta los datos comentados con anterioridad, no parece que la propuesta de modificación provoque cambios sustantivos en la distribución entre personas obligadas y no obligadas a presentar la declaración.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu dira.

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto.

Donostia, 2021eko maiatzaren 31a

San Sebastián, a 31 de mayo de 2021

**Sin/Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal**
**AZTERLANETAKO ATALBURUA /JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS**